

# Koiuntura di-da batean

2018ko otsaila

## Aurkibidea

1. Hazkundera
  2. Enplegua
  3. Langabezia
  4. Inflazioa
  5. Ingurunea
  6. Aurreikuspenak
- Eranskina

### 1. EAEko ekonomia %3,0 hazi zen laugarren hiruhilekoan.

2017. urte osorako BPGaren gehikuntza tasa %2,9 izan zen.

### 2. BJA inkestak enplegua erritmo bizian sortzen jarraitzen ari dela baieztatu du.

Urteko batez bestekoan, 2017an 915.000 landun baino gehiago zeuden.

### 3. Langabeziak beherakada handia izan zuen 2017an.

Langabezia tasa %11,2ra jaitsi zen urteko batez bestekoan, BJA inkestaren arabera.

### 4. Erregaiak %1,1era moteldu dute KPIa 2017ko amaieran.

Baina urte osorako batez bestekoa %2,0an kokatu zen.

### 5. Munduko ekonomiak emaitza positiboa izan zuen 2017an.

Hala herrialde aurreratuek nola azaleratzen ari direnek parte hartu zuten hobekuntza horretan.

### 6. Aurreikuspen ekonomiko onak 2018rako eta 2019rako.

NDFk aurreikusten duenez, munduko ekonomia %3,9 haziko da bi urte horietan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA  
SALA  
Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA  
Dirección de Economía y Financiación

## EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %3,0 hazi zen laugarren hiruhilekoan

### Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek kontu ekonomikoen aurrerapena, 2017ko laugarren hiruhilekoari dagokiona, argitaratu du. Estatistika horren arabera, EAEko ekonomia %3,0 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoko zenbakia berdinduz. Hiruhileko arteko terminoetan, aldakuntza tasa %0,7 izan zen. Horri esker, urte osoko batez besteko hazkuntza %2,9ra iritsi zen, aurreko urtekoa baino bi hamarren bakarrik gutxiago. Hala hiruhilekoko datua nola urte osokoa bat etorri dira Ogasun eta Ekonomia Sailak egin zuen aurreikuspenarekin. Eustatek adierazi duenez, jarduera adar guztiek, lehen arloak izan ezik, ekarpen positiboa egin zioten balio erantsi gordinaren hazkuntzari. Beraz, EAEko ekonomiaren 2017ko bilakaera susperraldia finkatzeko testuinguru sendo baten barruan kokatzen da.


### Barne produktu gordina

Urte arteko aldakuntza tasa




### Barne produktu gordina

2008. urtea = 100




**Enplegua kontu ekonomikoetan**  
Urte arteko aldakuntza tasak




BPGaren bizitasunarekin batera enpleguaren aldeko bilakaera gauzatu zen. Izan ere, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, enplegua %2,0 gehitu zen urte arteko tasan. Emaizta hori eta azken epealdietan jaso direnak oso antzekoak dira, enplegua sortzeko erritmoan egonkortasun handia dagoela nabarmenduz. Hiruhileko arteko hazkunde tasa %0,6 izan zen. Beraz, 2017ko batez besteko aldakuntza tasa %2,1ean kokatu zen eta gutxi gorabehera 19.200 lanpostu sortu ziren urte osoan zehar. Urteko terminoetan, 935.700 lanpostu inguru zenbatetsi dira. Kopuru hori esanguratsua da baina oraindik ez da iritsi krisiaren aurretik zeuden enpleguen mailara. Zehazkiago adierazita, 2008. urtean EAEko ekonomiak 998.400 lanpostu zeuzkala kalkulatu da.

Kontuan hartuta BPGaren eta enpleguaren hazkunde horiek, 2017an EAEko lan faktorearen produktibitatea %0,8aren inguruan hazi zen, hots, azken urteetan baino zertxobait gutxiago, zeren urte horietan %1,0 baino gehiago gehitu baitzen.

**Enplegua kontu ekonomikoetan**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Enplegua kontu ekonomikoetan**  
2008. urtea = 100




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustateko datuetan oinarrituta.

## ENPLEGUAREN BILAKAERA

BJA inkestak enplegua erritmo bizian sortzen jarraitzen ari dela baieztatu du

### Landunen kopurua


Urteko batez bestekoa milatan



BJA inkestaren arabera, 2017ko laugarren hiruhilekoan enplegua 12.300 landunetan areagotu zen aurreko urteko hiruhileko berean zegoen kopuruarekin alderatuta. Horri esker, 2017ko batez bestekoak 915.000 landun baino gehiago zeudela iragartzen du. Zenbaki hori azken sei urteetako altuena da eta urte arteko aldakuntza tasa %1,4an dagoela seinatzen du, aurreko bi ekitaldietako hazkunde positiboa baieztatuz, hainbat urtez beherakadak jaso eta gero. Enpleguaren gorakadan emakumeek eta gizonen hartu zuten parte. Ia ia inolako salbuespenik gabe, emakumeen urte arteko gehikuntza tasa gizonena baino altuagoa izan da azken urteetan. Hala ere, lanean dauden emakumeen kopurua oraindik gizonena baino txikiagoa da.


### Emakume landunak

Urteko batez bestekoa milatan




### Gizon landunak

Urteko batez bestekoa milatan




### Landun kopurua. Lehen arloa

Urteko batez bestekoa milatan



### Landun kopurua. Industria


Urteko batez bestekoa milatan



Sektoreen ikuspegitik, adierazi behar da guztiek sortu zutela enplegua, baina erritmo ezberdinetan. Izan ere, industria izan zen protagonista nagusia 2017an, enplegua sortzeko orduan. Hain zuzen ere, ekonomia jarduera horrek aurreko urtekoetako baino 8.700 lagun gehiagori eman zien enplegua eta urte arteko aldakuntza tasa %4,6 nabarmen batean kokatu zuen, hain zuzen ere 2001etik eskuratu duen emaitzarik gorena baita. Eraikuntzak, berriz, bere susperraldia egiaztatu zuen eta dagoeneko bi ekitaldi kateatu ditu hazkunde positiboak lortuz. Horri esker, jarduera horretan lan egiten duten pertsonen kopurua poliki-poliki 50.000tara hurbiltzen ari da. Azkenik, zerbitzuek ere areagotu zuten beren enplegua 2016an zeukan mailaren aldean, 2.300 lagun gehiagorekin, baina 2017ko gorakada aurreko urteetakoak baino apalagoa izan zen, urte arteko tasa %0,4an utzita.


### Landun kopurua. Eraikuntza

Urteko batez bestekoa milatan



### Landun kopurua. Zerbitzuak


Urteko batez bestekoa milatan



## LANGABEZIAREN BILAKAERA


### Langabeziak beherakada handia izan zuen 2017an

#### Langabezian dauden pertsonak Urteko batez bestekoa milatan




BJA inkestak eskaini duen informazioaren arabera, 2017an lanik gabe zeuden pertsonen kopurua oso nabarmen murriztu zen, urteko batez bestea 115.900 lagunetan utzi arte, hots, 2016an zeudenak baino 24.000 inguru gutxiago. Beraz, langabezia hirugarren urtez jarraian gutxitu da eta denbora horretan lortu den jaitsiera metatua 50.000 pertsonatik gorakoa da. Langabezia sexuaren arabera banatzen denean, antzeko zenbakiak hautematen dira batean eta bestean. Izan ere, 58.500 emakume eta 57.400 gizon zeuden lanik gabe. Lehenengo aldia da, 2005etik, emakume gehiago daudela langabezian. Beste aldetik, gazte langabeak 8.100 baka-rik ziren, hori ere urteko batez bestekoan, 2016an baino 4.700 gutxiago.


#### Langabezian dauden emakumeak Urteko batez bestekoa milatan




#### Langabezian dauden gizonak Urteko batez bestekoa milatan



## Langabezia tasa BJA inkestan



## Langabezia tasa BAI inkestan




Iturria: BJA (Eustat) eta BAI (INE).


Langabeen jaitzierak eragin zuzena dauka langabezia tasaren kalkuluan. Tasa hori %11,2ra jaitsi zen urteko batez bestekoan, 2016an zegoena baino 2,2 puntu txikiagoa baita. BJA inkestak zenbatetsi duen beherakada hori baieztatuta geratu da INEren BAI inkestak eskaini dituen datuekin, 2017ko batez bestekoa %11,3an kokatu baitu. Hala ere, EAEko tasa oraindik Euroguneko batez bestekoa baino altuagoa da, azken hori %9,0aren zertxobait gaintik amaituko delako. Orobat, Europar Batasuneko ez da %8,0ra iritsiko.

Langabeziaren murrizketak bi generoei mesede egin dien arren, langabezia tasa nabarmen gehiago jaitsi da gizonen kasuan. Zehazkiago, 2016ko %13,3tik 2017ko %10,6ra gutxitu da gizonen langabezia tasa, emakumeen tasa %13,6tik %11,9ra beheratu den bitartean. Kontuan hartzen bada sortu berri diren lanpostuen banaketan emakumeek portzentaje handiagoa bereganatu dutela, langabezia tasaren beherakadan ikusten den desberdintasun hori gizon gehiago lan merkatutik irten direlako da (gizon aktiboen kopurua jaitsi da).

## Emakumeen langabezia tasa



## Gizonen langabezia tasa




Iturria: BJA (Eustat).

# INFLAZIOA

## Erregaiak %1,1era moteldu dute KPIa 2017ko amaieran

### KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa




EAEko kontsumo prezioek %1,1eko igoera izan zuten abenduan, urte arteko tasan. Datu hori hurbil dago Estatuan jaso den zenbakitik. Beraz, urte amaierako hilekoan inflazioa bost hamarren jaitsi zen aurreko hilekoko datuaren aldean eta, are gehiago, urte osoko tasarik txikiena markatu zuen. Hala ere, urteko batez besteko inflazioa %2,0an kokatu zen, aurreko hiru urteetako gaindituz eta EBZren erreferentzia berdinduz.

### KPIaren banaketa Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017ko abendua	Ekarpena
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>1,1</b>	<b>1,1</b>
<b>Azpiko inflazioa (%81,8)</b>	<b>0,9</b>	<b>1,1</b>	<b>0,7</b>	<b>0,6</b>
- Elikagai landuak (%14,3)	0,9	0,0	0,8	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	-0,5	0,0
- Zerbitzuak (%43,1)	1,1	1,7	1,3	0,5
<b>Hondar inflazioa (%18,2)</b>	<b>-4,2</b>	<b>6,5</b>	<b>2,8</b>	<b>0,5</b>
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,6	3,7	3,3	0,3
- Energia (%10,4)	-8,2	8,2	2,3	0,2


### Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



### Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak





### Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Kontsumoko prezioen moteltze horretan, energiaren portaerak eragin garrantzitsua izan zuen, 2017ko abenduan iazko hileko berean baino igoera txikiagoa ezagutu zuelako. Hain zuzen ere, hala erregaiek nola argindarrak urte arteko aldakuntza tasak gutxitu zituzten. Mugimendu horien ondorioz, garraioak eta etxebizitzak, produktu horien aldakuntzak gehien nabaritzen dituzten taldeak baitira, parte hartze handiena izan zuten inflazioaren moteltzean, aurreko hilekoko datuaren aldean puntu bat baino gehiago jaitsiz. Bi horiei aisia eta kultura gehitu behar zaie, balio negatibotan kokatu baitzen, turismo paketeen salneurria gutxiago igo zelako.

#### KPIaren talde nagusiak Urte arteko aldakuntza tasak


	Euskadi abendua	Espainia abendua	Euskadi urteko batez bestea	Espainia urteko batez bestea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>1,1</b>	<b>1,1</b>	<b>2,0</b>	<b>2,0</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,7	1,7	1,2	1,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,8	1,7	1,7	1,7
Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,5	0,7	0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	1,1	1,3	3,7	3,9
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,7	-0,5	-0,3	-0,4
Medikuntza	0,4	0,4	1,1	0,7
Garraioa	2,0	1,9	4,3	4,2
Komunikazioak	0,3	0,2	1,3	1,3
Aisia eta kultura	-0,3	-0,6	1,9	1,1
Hezkuntza	1,6	0,7	1,6	0,9
Jatetxeak eta hotelak	1,8	1,9	1,8	1,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,5	0,7	0,7	0,9

## BPG-AREN HAZKUNDEA

### Munduko ekonomiak emaitza positiboa izan zuen 2017an

#### Munduko ekonomia. BPGaren hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: NDF.

Gaur arte argitaratu diren ekonomia adierazleek iradokitzen dutenez, munduko ekonomia jarduera %3,7 hazi zen 2017. urtean, aurreko bost urteetan jasotako emaitzak gaindituz. Jardueraren susperraldiaren egonkortze hori ekonomia eremu nagusi gehienetara hedatu da eta hainbat arrazoietan oinarritu da, hala nola moneta politika egokitzailak bere horretan jarraitzean, finantzaziorako baldintza onetan eta munduko merkataritzaren sendotzean.

#### Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: ELGE.

Txinako BPGa %6,9 areagotu zen 2017an. Tasa horrek buelta ematen dio 2010etik bizi duen beheranzko joerari. Datu hori esportazioen bilakaera onari, neurri pizgarriei eta kontsumitzaileen gastuari esker lortu da. Orobat, agintarien helburu ofiziala (%6,5) nabarmen gainditu du eta aurreko urteko emaitzari bi hamarren gehitu dizkio. Hazkunde horrek konfiantza eman die agintari komunistei eta beren ereduari, zerbitzuetan gehiago oinarritzen den ekoizpen eredu batera egokitzeko gaitasun handia erakutsi baitu.

## AEBetako agregatu makroekonomiko nagusiak


	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>BPG</b>	<b>1,6</b>	<b>2,2</b>	<b>1,7</b>	<b>2,6</b>	<b>2,9</b>	<b>1,5</b>	<b>2,3</b>
Kontsumo pribatua	2,3	1,5	1,5	2,9	3,6	2,7	2,7
Inbertsio pribatua	5,2	10,6	6,1	5,5	5,2	-1,6	3,2
Kontsumo eta inbertsio publikoak	-3,0	-1,9	-2,9	-0,6	1,4	0,8	0,1
Esportazioak	6,9	3,4	3,5	4,3	0,4	-0,3	3,4
Inportazioak	5,5	2,2	1,1	4,5	5,0	1,3	3,9
Langabezia tasa	8,9	8,1	7,4	6,2	5,3	4,9	4,4
KPI	3,2	2,1	1,5	1,6	0,1	1,3	2,1

Iturria: BEA.

AEBetan, kontsumo pribatuaren alde jokatu zuten inflazio apalak eta lan merkatuaren egoera onak, langabezia tasa %4,5aren azpian egonik enplegu betean dagoela ziurtatu baitaiteke. Halaber, inbertsio pribatuak ere ekarpen nabarmena egin zion ekonomia jarduerari, egoitzaz bestelako inbertsioaren gorakada biziari esker, hala egituretan eginikoak nola ekipamenduan eginikoak, biek ala biek 2016an pairatu zuten beherakada bizia indartsu gainditu zutelako. Kanpo arloak, berriz, hamarren bat kendu zion BPGari, zeren eta kontsumitzaileen gastuak inportazioak areagotu baitzituen eta %3,9 handitu. Horrek esportazioen igoera konpentsatu zuen, dolarraren ahultasunak lagundu bazuen ere. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia estatu-batuarra %2,3 hazi zen 2017an, aurreko urterako kontabilizatu zen %1,5aren aldean bizkortze garrantzitsua jasoz.

### Alemaniako BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasak



2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017

### Erresuma Batuko BPGaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak



2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017

Europar Batasunari dagokionez, gaur arte ezagutu diren datuek erakusten dute eremu horretako jarduera eritmoak sendo jarraitzen duela. Horixe baieztatzen du Alemaniako hazkundeak, 2015ean hasitako goranzko joerari segida eman diolako eta %2,2 hazi, 2011tik jaso duen tasarik onena baita.

Erresuma Batuko ekonomiak, berriz, %1,8ko gehikuntza tasa eskuratu zuen 2017an, hots, aurreko urtekoa baino hamarren bat gutxiago eta 2012tik izan duen hazkunde tasa txikiena. Kasu horretan, eta industriari eta eraikuntzak bilakaera hobea izan duten arren, zerbitzuen galgatzea eta lehen arloaren jaitsierak azaltzen dute bilakaera hori. Hala eta guztiz ere, emaitza horrek erakunde nagusien aurreikuspenak gainditu ditu, baita gobernu britainiarrarena ere.


Iturria: Eurostat eta Office for National Statistics.

## NDF-REN AURREIKUSPENAK

### Aurreikuspen ekonomiko onak 2018rako eta 2019rako

#### Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



NDFk munduko BPGaren hazkundeaz prestatu dituen aurreikuspen berriak argitaratu ditu urtarrileko txostenean. Munduko ekonomiaren bizitasuna islatuta geratu da 2018rako eta 2019rako aurreikusi dituen aldakuntza tasetan, bi urteetan %3,9an kokatu dituelako. Datu horiek goranzko zuzenketa bat ekarri dute, bereziki ekonomia garatuen bilakaera bikainak eraginda. Azaleratzen eta garatzen ari diren ekonomien multzoari dagokionez, etorkizunerako aurreikuspenak ia ez dira aldatu eta alde handiak hautematen dira eskualde batzuen eta besteen artean.


#### NDFren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2017	2018	2019	2018	2019
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>3,7</b>	<b>3,9</b>	<b>3,9</b>	<b>0,2</b>	<b>0,2</b>
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>2,3</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>0,3</b>	<b>0,4</b>
AEB	2,3	2,7	2,5	0,4	0,6
Eurogunea	2,4	2,2	2,0	0,3	0,3
Alemania	2,5	2,3	2,0	0,5	0,5
Frantzia	1,8	1,9	1,9	0,1	0,0
Italia	1,6	1,4	1,1	0,3	0,2
Espainia	3,1	2,4	2,1	-0,1	0,1
Erresuma Batua	1,7	1,5	1,5	0,0	-0,1
Japonia	1,8	1,2	0,9	0,5	0,1
<b>Garatzen ari diren herrialdeak</b>	<b>4,7</b>	<b>4,9</b>	<b>5,0</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>
Txina	6,8	6,6	6,4	0,1	0,1
India	6,7	7,4	7,8	0,0	0,0
Errusia	1,8	1,7	1,5	0,1	0,0
Brasil	1,1	1,9	2,1	0,4	0,1

Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa.


### Ekonomia aurreratuen BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




### Garapen bidean dauden ekonomien BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




### AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



### Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Oro har, argitaratu den eszenategiaren gainean dauden arriskuak orekatuta daude epe laburrean, baina beherantz seinalatzen dute epe ertainean. Epe laburrean, ziurgabetasuna bi alderditan fokutzen da: finantza merkatuen balizko zuzenketa baten mehatxua eta zerga politikaren aldaketen aurrean inbertsioak izango duen erantzunaren tamaina.

Epe ertainean, beheranzko arrisku garrantzitsuak agertzen dira, hala nola finantza alorreko ahulezien gehikuntza, herrialde batzuek politika isolatzaileak onartzea eta ekonomiaz besteko hainbat faktore egotea, esate baterako tentsio geopolitikoak eta ziurgabetasun handia ekarriko duten hauteskunde prozesuak.

### Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

## EAE-KO EKONOMIA

## Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2016		2017		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>	<b>2,8</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>
Familien kontsumoa	3,1	—	3,1	3,0	3,0	3,0	—
Administrazioaren kontsumoa	2,3	—	3,1	2,6	1,2	2,7	—
Kapital eraketa gordina	3,1	—	2,9	3,0	3,2	3,9	—
Barne eskaria	3,0	—	3,0	2,9	2,7	3,1	—
Esportazioak	1,5	—	-0,5	1,5	1,9	3,7	—
Inportazioak	1,5	—	-0,2	1,9	1,8	3,9	—
Lehen arloa	2,0	—	-1,5	4,2	-1,9	-1,9	—
Industria	2,9	—	2,7	2,0	2,3	2,7	—
Eraikuntza	1,8	—	2,4	2,1	1,9	3,0	—
Zerbitzuak	2,8	—	2,7	3,0	3,2	3,1	—
Balio erantsi gordina	2,7	—	2,6	2,7	2,9	3,0	—
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	—	6,4	3,3	2,4	3,0	—

Iturria: Eustat.

## Aurreikuspenak. 2017ko abendua

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017		2018				2018
	IV	2017	I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>3,0</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>	<b>2,5</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>2,5</b>
Barneko azken kontsumoa	2,9	2,8	2,6	2,4	2,1	2,1	2,3
Familien kontsumoa	3,1	3,0	2,8	2,5	2,2	2,2	2,4
Administrazioaren kontsumoa	1,9	2,1	1,9	1,7	1,5	1,7	1,7
Kapital eraketa gordina	3,3	3,3	3,2	3,2	3,4	3,4	3,3
Barne eskariaren ekarpena	3,1	3,0	2,9	2,7	2,5	2,4	2,6
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,1	0,0	-0,2	-0,2	-0,2	-0,1
Lehen arloa	-4,0	0,9	2,4	-1,5	-6,4	-8,0	-3,4
Industria	2,9	2,5	2,9	2,7	2,8	2,8	2,8
Eraikuntza	2,5	2,4	2,0	1,8	1,8	1,5	1,8
Zerbitzuak	3,1	3,1	2,9	2,7	2,4	2,3	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	2,9	2,6	2,3	2,2	2,5
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,9	2,9	2,5	2,2	2,2	1,9	2,2
Enplegua	1,9	2,0	1,9	1,7	1,6	1,4	1,7

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

## EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
Confebask	3,0	2,9	Hispalink (BEGren aldakuntza)	3,0	2,2
Laboral kutxa	3,0	2,7	BBVA	2,7	2,9
Funcas	3,0	2,7	CEPREDE	2,7	2,3

Iturria: CEPREDE (2018ko urtarrila), BBVA (2017ko azaroa), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2017ko abendua), Funcas (2017ko azaroa) eta Hispalink (2017ko abendua) .

## ESPAINIAKO EKONOMIA

### Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2016		2017		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>3,3</b>	<b>3,1</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>3,1</b>	<b>3,1</b>
Kontsumo pribatua	2,9	—	2,7	2,3	2,4	2,4	—
Kontsumo publikoa	0,8	—	0,0	0,7	1,1	1,0	—
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	—	2,7	4,8	3,8	5,4	—
- Aktibo finko materialak	3,4	—	2,8	5,0	3,9	5,4	—
- Eraikuntzan	2,4	—	3,1	4,1	4,0	4,9	—
- Ekipamendu ondasunetan	4,9	—	2,5	6,3	3,8	6,1	—
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,7	—	2,1	3,7	3,2	5,5	—
Nazio eskaria (ekarpena)	2,5	—	2,0	2,4	2,3	2,7	—
Esportazioak	4,8	—	4,5	6,5	4,4	4,9	—
Inportazioak	2,7	—	1,6	4,9	2,3	4,0	—

Iturria: INE.

### Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	3,1	2,8	Intermoney	3,1	2,6
Axesor	3,1	2,5	Repsol	3,1	2,4
BBVA	3,1	2,5	Santander	3,2	2,7
Bankia	3,2	3,0	Solchaga Recio & asociados	3,1	2,6
CaixaBank	3,1	2,4	<b>BATEZ BESTE</b>	<b>3,1</b>	<b>2,6</b>
Cemex	3,1	2,7	Gobernua (2017-10)	3,1	2,3
CEEM-URJC	3,1	2,5	Espainiako Bankua (2017-12)	3,1	2,5
CEPREDE-UAM	3,1	2,5	Europar Batzordea (2017-11)	3,1	2,5
CEOE	3,1	2,5	NDF (2018-01)	3,1	2,4
FUNCAS	3,1	2,6	ELGE (2017-11)	3,1	2,3
ICAE-UCM	3,1	2,5	The Economist (2018-01)	3,1	2,6
IEE	3,2	2,7	Consensus Forecast (2018-01)	3,1	2,5

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

## NAZIOARTEKO EKONOMIA

### Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2016		2017		
			IV	I	II	III	IV
AEB	1,5	2,3	1,8	2,0	2,2	2,3	2,5
Txina	6,7	6,9	6,8	6,9	6,9	6,8	6,8
Japonia	1,0	—	1,5	1,3	1,7	2,1	—
Kanada	1,4	—	2,0	2,3	3,6	3,0	—
Europar Batasuna	1,9	2,5	2,0	2,2	2,5	2,8	2,6
Eurogunea	1,7	2,5	1,9	2,1	2,4	2,8	2,7
Alemania	1,9	2,2	1,9	2,1	2,3	2,8	—
Frantzia	1,1	1,9	1,2	1,2	1,8	2,3	2,3
Erresuma Batua	1,9	1,8	2,0	2,1	1,9	1,7	1,5
Italia	0,9	—	1,0	1,3	1,5	1,7	—
Herbehereak	2,2	—	2,8	2,6	3,8	3,2	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

### Consensus Forecast. 2018ko urtarrila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,7	2,4	2,1	2,1	3,9	3,8
Japonia	1,4	1,1	0,9	1,1	2,7	2,6
Kanada	2,1	1,8	2,0	2,0	5,9	5,9
Europar Batasuna	2,1	1,8	1,7	1,8	—	—
Eurogunea	2,2	1,8	1,4	1,6	8,5	8,1
Alemania	2,3	1,8	1,7	1,8	5,5	5,3
Frantzia	1,9	1,7	1,3	1,5	9,0	8,7
Erresuma Batua	1,4	1,5	2,6	2,2	4,4	4,5
Italia	1,4	1,1	1,1	1,4	10,7	10,3
Herbehereak	2,6	2,0	1,6	2,0	—	—

Iturria: Consensus Forecast.